**Tolosaldea** Asteazkenean hasiko da Mugikortasun Astea 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

**Ostirala, 2012ko irailaren 14a.** IX. urtea. 2.400. zenbakia. **tolosaldea.hitza.info**

**Nestor Basterretxea** Artista

# «Tolosan beti zaindu izan da asko kultura eta berau inguratzen duena»

Tolosako I. Eskulturasteko itxiera ekitaldian omenaldia egingo diote artista bermeotarrari, herriko ondare artistikoaren garapenean eskainitako laguntzagatik

Ia bederatzi hamarkadako bizitzaren ondoren, Hondarribian bizi da Basterretxea gaurkoari eta biharkoari begira, bokazio duen artea albo batera utzi ezinik 4-5



Nestor Basterretxea, Hondarribiko etxean, azalpenak ematen. I. URKIZU

## Gizarte osoari greba orokorrarekin bat egiteko eskatu diote LAB eta ELAk

Herritarrek mobilizazioetan parte hartzea «beharrezkotzat» jotzen dute sindikatuek: «Behartzen ez baditugu, ezer ez da aldatuko» 3

## Herrirak giza katea egingo du bihar eguerdian Tolosan

Bizi osorako espetxe zigorraren aurkako ekitaldia Trianguloa plazatik abiatuko da 2

## Gaur hasiko dute lehia emakume pilotariek

Su Berriko bi taldeak, Garmendia eta Arozena, eta Mendizabal eta Evaristti, elkarren aurka ariko dira 7

## Ibarrako Mendi Duatloi proba egingo dute bihar arratsaldean

Euskal Herriko II. Mendi Duatloi Zirkuituko lehen proba izango da; hiru zati izango ditu lasterketak, eta parte hartzeko 16 euro ordaindu behar dira 6






# Autoa baztertu eta oinez, bizikletaz edo garraio publikoan ibiltzeko astea

Mugikortasun Astea Joanes Gibelalde tolosarraren ikus-entzunezko batekin hasiko da

**Asier Imaz**

Tolosaldeko udalek eta Tolosaldea Garatzenek bat egiten dute Europako Mugikortasun Astearekin, eskualdean mugikortasun eredu iraunkorragoa bultzatzeko. Hilaren 19tik 23ra, hainbat ekimen egingo dituzte auto pribatua baztertuz, eta oinez, bizikletaz zein garraio publikoan ibiltzera animatuz. Deialdien artean, hilaren 22an, Villabonan egingo den bigarren eskuko azoka dago. Materiala bertara eraman daiteke salgai jartzeko, edo eskualdeko udaletxeetan utz daiteke. Horrez gain, ikastaro bat, ikus-entzunezko bat eta bizikleta martxa bat egongo dituzte Mugikortasun Astearen barruan.

### ↓ Egitaraua

**IRAILAK 19, ASTEAZKENA**

▪ **19:30.** *Hegoaldera bizikletaz* ikus-entzunezkoa Tolosako Errotan, Antxon Bandres Bidaiariaren Txokoak antolatuta. Joanes Gibelalde tolosarrak 2007ko maiatzaren eta 2008ko urriaren artean 26.000 kilometro egin zituen bizikletaz, 29 herrialde zeharkatuz eta munduko txoko isolatuenetako batzuk ezagutuz.

**IRAILAK 20, OSTEGUNA**

▪ **10:30ean eta 17:30ean.** Bizikletan modu seguruan ibiltzen ikasteko ikastaroa Tolosako Trianguloan. Energiaren Euskal Erakundearekin batera, bizikleta garraiobide moduan erabiltzeko beldurrak gutxitzeko eta zirkulaziorako praktika onak sustatzeko ikastaro praktikoa. Bi orduko iraupena izango du, eta doan izango da.

**IRAILAK 22, LARUNBATA**

▪ **10:00etatik 13:30era.** Bigarren eskuko azoka Villabonako Berdura plazan. Bizikletak, trizikloak, patinak, patineteak, kaskoak, mailotak, umeen kotxeak... Informazio gehiago 689 74 94 39 zenbakian, edo eskualdeko udaletxeetan.

**IRAILAK 23, IGANDEA**

▪ **10:30.** VI. Tolosaldeko Irristailu-Bizikleta Martxa. 10:30ean Ikaztegieta eta Asteasutik irtengo dira. 11:30ean Anoetan elkartuko dira: Hamaiketako ekologikoa, opari zozketa, ipuin kontalaria... Euria egiten baldin badu, bertan behera gelditu da martxa.

# Irurako trinketea berriro irekiko dute, 25. urteurren jaian

Joxi Lopetegi irurarrak xare partida jokatuko du inaugurazio jaialdiaren barruan, 20:30ean

**A. Imaz** Irura

Irurako trinkete berrituaren ateak gaur zabalduko dituzte. Egun seinalatua izango da gaurkoa gainera, trinketearen 25. urteurrena ospatuko baitute.

Irurako frontoi berezia azken urte t'erdian itxita egon da, berrikuntza lanak medio. Behin lanak amaituta, inaugurazio jai ederra antolatu dute, 19:30etik aurrera. Ate irekien ekitaldi honetara, herritarrak eta kanpotarrak gonbidatu ditu Irurako Udalak. Bisitaz gain, 20:00etan luntxaz gozatzeko aukera egongo da Irurako trinketea behar bezala berrinauguratzeko. Hori ez da izango dena, ordea, 20:30erako goi mailako xare partida antolatu baitute. Udaletik azaldu dutenez, pilota lehian munduko xare jokalaririk onenak egongo dira. Hauen artean Joxi Lopetegi irurarra egongo da, Funosasekin bikotea osatuz.

### ↓ Egitaraua

**GAUR, IRAILAK 14**

▪ **19:30.** Inaugurazio ekitaldia egingo dute.
▪ **20:00-20:45.** Luntxa dastatzeko aukera egongo da.
▪ **20:30.** Munduko xare jokalaririk onenen arteko partida ikusteko egongo da trinketeak. Alde batetik, Bruno Driolet eta Joel Sistiague irtengo dira kantxara, eta bestetik, Joxi Lopetegi eta Mikel Funosas.

## → Laburrak

### Izaskun auzoko festa batzordearen esker mezua

**TOLOSA ›** Izaskun auzoko festa batzordeak eskerrak eman nahi izan dizkie aurtengo jaiak aurrera ateratzea ahalbideratu duten guztiei: «Arsenal, Emendek eta Izaskun elkarteei, auzoko denda eta tabernei, eta Otsabi auzo elkarteko gazteei; hauek gabe gure jaiak antolatzea zaila izango litzateke». Bestalde, esker bereziak izan dituzte «Bonberenea gaztetxea, Vista Alegre txaranga eta Laket musika taldearentzat, urtero bezala beraien lana goraipatzekoa izan baita». Auzora gerturatu direnak ere gogoan izan dituzte jai batzordekoek, «hauek baitira gugan sinetsi eta jai herrikoiak indartzen dituztenak».

### Bernardo Atxaga Huheziko EKT graduondoan ariko da

**ASTEASU ›** Euskal kulturako sortzaile eta eragile ezagun ugarik hartuko dute parte Mondragon Unibertsitateak antolatuta Eskoriatzan egingo den EKT Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoaren laugarren ekitaldian. Horien artean, Bernardo Atxaga idazlea dago. Ikastaroa urriaren 3an hasi eta 2013ko ekainaren 5ean amaituko da.

### Hiruhilabeteko afrikar dantza ikastaroa

**ADUNA ›** Asvineneak hiruhilabeteko afrikar dantza ikastaroa antolatu du urriaren 2tik aurrerako. Bazkideek 120 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek 135. Marie Toure ginearra izango da irakaslea. Erreserbak 691 62 66 06 zenbakira deituta edo *laidall@hotmail.com*-en egin daitezke.

# Bizi osorako espetxe zigorraren aurkako giza katea egingo dute, bihar

Maite Aranalde euskal presoa dagoen espetxera martxa antolatu du Ibarrako Herrirak

**A. I.**

Tolosaldeko Herrira mugimenduak giza katea antolatu du biharko; Tolosako Trianguloatik abiatuko dira 12:00etan. Bizi osorako espetxe zigorraren aurkako ekimena izango da, eta Herriratik eskualdeko herritar guztiei bertara agertzeko deia luzatu die.

Hainbat euskal herritar bihar Estrasburgora joango dira. Bertako giza eskubideen epaitegiak 197/2006 bizi osorako doktrinaren inguruan emandako ebazpena, «Espainiak ez duela betetzen salatzera». Herrira mugimenduak antolatu du bidaia hau, eta ekimenari babesa azaltzeko, 69 herritan protestak antolatu dituzte. Herriraren esanetan, 69 euskal preso daude egoera horretan, «Estrasburgoko epaitegien ebazpenaren arabera, kalean egon beharko luketen 69 euskal herritar». Tolosako Pello Odriozola presoa da horietako bat, eta horregatik antolatu dute eskualde mailako giza katea Tolosan. Odriozola Zaragozako Zuerako espetxean dago. Herriratik azaldu dutenez, «2008ko uztailaren 2tik aske egon beharko luke, baina 197/2006 ebazpena aplikatu eta bere askatasunaren eguna 10 urtez atzeratu zuten».

**Vivonnera martxa**

Maite Aranalde preso ibartarra Frantziako Vivonneko espetxean dago. Ibarrako Herrirak martxa antolatu du bertara, urriaren 12an. Horretarako autobusa bete nahi dute, eta zerrendak datozen egunetan jarriko dituzte Ibarrako ohiko tabernetan. Herritar guztiei, eta interesatuta daudenei, zerrendan izena emateko deia egin die, eta ahalik eta azkarren egiteko eskatu die. Zerrendak urriaren hasieran kenduko dituzte, eta izena eman duen jendearen arabera antolatuko dute autobusa. Martxara goizean abiatuko lirateke herritik, egun berean itzultzeko.

Maite Aranalde 2010. urtean atxilotu zuen Frantziako poliziak Baionan, aurrez Espainiaratua eta aske gelditua izan ostean. Bigarren espetxealdian aurkitzen da, beraz, ibartar gaztea.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkariak,
IGANDETARAKO ARGAZKILARIA
behar du
Interesa duzuenok, bidali curriculuma:
tolosaldean@hitza.info
helbide elektronikora

## Anoeta, Zizurkil, Amezketa, Tolosa, eta Bidegoianen, pilota partidak

Gaur eta bihar izango dira partidak; Su Berri, Zazpi Iturri eta Aurrera Saiazeko pilotariak ariko dira lehian

**E. Maiz**

Pilota partidak ikusi nahi dituenak aukera zabala du, eskualdean. Gaur, Anoetan eta Zizurkilen izango dira, eta bihar, Tolosa, Bidegoian eta Amezketaren txanda izango da.

Gaur, 19:00etan, Anoetako Alkartasuna pilotalekuan, gomazko paletako lehen mailako neska nagusien partida jokatuko da; Su Berri 1, Su Berri 2ren aurka ariko da. Zizurkilen, berriz, Intxaur pilotalekuan eskuz binakako nagusien mailako partida jokatuko da 19:30ean.

Bihar, larunbata, 16:00etan, Bidegoiango pilotalekuan kadeteen mailako partida bat eta nagusien mailako bi jokatuko dira. Aurrera Saiazko pilotarien artekoa izango da lehena eta hurrengo biak, Murumendi eta Gaztelekuren aurka jokatu beharko dituzte. 17:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan Aurrera Saiazkoek hiru partida jokatuko dituzte nagusien mailako bi eta gazteen mailakoa bestea. Ordu berean, Amezketako Larrunarri pilotalekuan ere bi partida jokatuko dituzte Zazpi Iturriko pilotariek.

tolosaldean@hitza.info

## → Laburrak

### Hirigintza, kultura eta ingurumen batzordea

**AMEZKETA ›** Hirigintza, kultura eta ingurumena batzordearen bilera izango da, astelehenean, hilaren 17an. 20:30ean udaletxeko batzar aretoan izango da, eta hainbat gai izango dira jorratzeko. Herritarrei parte hartzeko deia egiten diete.

### Afaria eta 'Pilota bertsotan' saioa, Goiatzen

**BIDEGOIAN ›** Bihar, hilak 15, Goiazko frontoian afaria izango da, 21:00etan. Ondoren, Xabier Euzkitze eta Joxean Goikoetxearen eskutik *Pilota bertsotan* emanaldiaz gozatzeko aukera izango da. Kukuri kultur elkarteak antolatu du Bidegoiango Udalaren laguntzarekin.

# LAB eta ELA sindikatuek irailaren 26an greba egiteko deia egin dute

Sindikatuetako ordezkariek, langileriari eta gizarte osoari greba orokorrarekin bat egiteko eskatu diete

**Eneritz Maiz**







LABeko Usua Lasa eta Haizea Mendia, eta ELAko Ana Alkorta eta Aitor Goenaga, atzo. AIMAR MAIZ /JOSUNE ZARANDONA

LABek eta ELAk irailaren 26ean greba egiteko deia luzatu zuten, atzo, sindikatuek eskainitako prentsaurreko banatan. Langileriari eta gizarte osoari greba orokorrarekin bat egiteko eskatzen diete bi sindakatuek, «gizartearen gaitzespena eta mobilizazioak», beharrezkotzat jotzen baituzte. Gehiengo sindikalak deitu du hilaren 26ko greba orokorra, eta «behartzen ez baditugu, ezer ez da aldatuko», adierazi zuten ELA sindikatuko Ana Alkorta eta Aitor Goenaga ordezkariek.

Sistema finantzieroaren «erreskatea» geuk ordaintzea nahi dutela adierazi zuen LAB sindikatuak. «Murrizketak 102.000 milioi eurotakoak izango dira, bankari emango dizkioten 100.000 milioi euroetatik oso gertu», gaineratu zuten, Usua Lasa eta Haizea Mendiak. Hau da, «102.000 milioi euro gutxiago oinarrizko zerbitzuak bermatzeko, enplegu-politikak egiteko, eredu ekonomikoan inbertitzeko, prestazioak bermatzeko,... Diru publikoa eta gure zergetako 102.000 milioi euro bankuei oparituta» geratuko direla nabarmendu zuten. Ordainetan, «herritarrentzat murrizketak, erreformak, pribatizazioak, zerga igoerak, soldata jaitsierak,...» izango direla nabarmendu zuten.

«PPren gobernuak uztailean onetsi berri dituen neurriak azkenaldian egiten ari den gizarte murrizketa handien ildoan jarraitzen dute. Politikak ez dira aldatu, eta beste batzuek sortutako krisia langileok ordaintzen ari gara», adierazi zuten ELA sindikatukoek.

«Etorkizunean murrizketa gehiago eta erreforma gehiago egingo dituztela iragarri dute, besteak beste, pentsioak aipatzen dira», nabarmendu zuten ELAko ordezkariek. «Zapateroren erreforma berehala indarrean sartzea, eta greba eskubidea bera ere murrizteko asmoa dute», salatu zuten Alkortak eta Goenagak. Eta «krisiagatik hartu behar izan diren neurriak direla deritzote, baina jakin badakigu murrizketa eta aldaketa kaltegarri guzti hauek geratzeko etorri direla», gaineratu zuten.

### «Alternatibak badaude»

LAB sindikatukoek alternatibak egon badaudela adierazi zuten: «Gobernu espainolaren erabakiak ez aplikatzea, Euskal Herriko instituzioetako aurrekontuetan ezarritako murrizketak bertan behera uztea, eta krisitik ateratzea ahalbideratuko diguten politikak egiteko plan instituzional integrala mahai gaineratzea», argitu zuten .

Era berean, aldarrikapen «oso argiak» egin zituzten: «Bankari diru gehiagorik ez ematea, euskal instituzioek murrizketak ez aplikatzea, politika publikoetan errotiko aldaketa ematea eta euskal instituzioak gizartearen zerbitzura jartzea».

ELA sindikatukoek ere «aukerak baditu» nabarmendu zuten: «Gure politikoei dei egiten diegu murrizketa horiek Euskal Herrian ez aplikatzeko, eta politika fiskalak eta sozialak zeharo aldatzeko. Horrela eginez gero, krisitik ateratzeko bide zuzena aurkituko genuke».

### Kalera ateratzeko beharra

Bi sindikatuek argi eta garbi adierazi dute, hilaren 26an, asteazkena, kalera ateratzeko beharra dagoela.

«Irailaren 26an Euskal Herriko kaleak bete behar ditugu, gure esparruan aplikatzen ari diren politikoen norabidea behingoz aldatzeko eta gure herria izan dadin hitza eta erabakia hartuko dituena», gaineratu zuten LAB sindikatuko Lasak eta Mendiak.

Irailean zehar, eskualdean ELAk hainbat ekimen eramango dituela aurrera jakinarazi zuten: «Greba orokorra gizarteratzea ezinbestekoa da, eta kotxe karabanak, kartelak jartzea, langile batzarrak,...».

«Lan eta gizarte eskubideen alde, politikak zeharo aldatzearen alde eta etorkizuna jokoan dugulako», greba orokorrarekin bat egitea eskatu zuten.

tolosaldean@hitza.info

### ↓ Erreskatea

**100.000**

■ **Milioi euro.** Gobernu Espainiarrak bankarentzako 100.000 eurotik gorako mailegua hartu ahal izan du, Europako kontseiluak maiatzean onetsita. Diru kopuru hori gutxiago izango da oinarrizko zerbitzuetarako, sindikatuek salatu dutenez

### ↓ LAB eta ELAk salatzen dituzten neurriak

■ **Langabetuen eskubideei erasoa.** Langabetuak baliabide publikoen iruzurgileztat jotzen dira, eta ez eskubideen subjektutzat. Langabeziagatiko prestazioen zenbatekoa gutxitzea.

■ **Administrazio publikoko langileen eskubideei erasoa.** Langile publikoen soldata izozteaz gain, bigarren ordain sari berezia kentzen zaie. Eskubide sindikalak eta xedapen libreko egunak murriztea.

■ **Menpekotasuna duten pertsonen eskubideen murrizketa.** Menpekotasuna aitortzeko graduak sinplifikatzen dira. Etxean menpeko pertsona bat zaintzen zuten familiartekoei ordaintzen zaizkien gizarte segurantzarako kotizazioak bertan behera gelditzen dira.

■ **Fiskalitate erregresiboa.** BEZa igotzea; zerga berezien igoera eta kotizazio sozialak jaistea.

■ **Ordutegien liberalizazioa eta pribatizazioak.** Merkataritzako arautegiak desarautzea, ordutegiak zabaltzea eta igande eta jai egunetan zabaltzea edota enpresa publikoak murriztu eta pribatizatzea.

■ **Fogasako bermeen murrizketa.** Ordaindu beharreko kopurua gutxieneko soldataren bikoitzera mugatzen du (lehen hirukoitza zen).


I. URKIZU

Nestor Basterretxea ▸ Artista

88 urteak beteta, iraganeko zenbait gauza ez gogoratzeak ez du izutzen Nestor Basterretxea. Gaurkoari eta biharkoari begira bizi da artista Hondarribian, bokazio duen artea albo batera utzi ezinik.

# «Euskaldunok, funtsean, oso izaki independenteak gara»

Itzea Urkizu

Ez da erraza Hondarribiko Idurmendieta baserrirako bidearekin bat egitea. Han bizi da Nestor Basterretxea (Bermeo, 1924), hasiera batean bere lagun Jorge Oteizarentzat aurkitu zuen etxean. Gerrak eta erbesteak bere arte adierazpenei forma eman izan diotela uste du, eta ia bederatzi hamarkadako bizitza luzearen ondoren, oraindik ere harrigarri suertatzen zaio haurren sormena.

Bihar, omenaldia egingo diote Tolosako I. Eskulturasteko itxiera ekitaldian, herriko ondare artistikoaren garapenean eskainitako laguntzagatik.

**Hamaika omenaldi egin dizkizute jada, baina, beti piztuko du poza.**

Bai, ilusioa beti eragiten dute horrelako gauzek. Ez dakit halakorik merezi dudan edo ez baina...

**Eskulturastea bezalako ekimenek artearen hariari segida ematen diote?**

Bai, noski. Tolosan beti zaindu izan da asko kultura eta berau inguratzen duen guztia, eta oso ondo dago hori. Bizirik mantendu behar da kultura.

**Autodidakta izan zinen zure hastapenetan.**

Nire erabateko bokazioa izan da; ez da merezimendua. Esango nuke, obsesio batekin jaiotzen garela, eta gauzak seriotasunez hartzen badira, obsesiora bideratzen da bat. Oteizak esango lukeen bezala, zerbaiten obsesiorik ez duena, galduta dago [barreak]. Nik txikitatik asko marrazten nuen; oso gaizki, pentsatzen dut, baina asko. Nire bizitza zertxobait antolatzeko adinera iritsi nintzenean, ordea, bi gerrarekin topo egin nuen: Espainiako Gerrak, batetik, hamabi urte nituela harrapatu ninduen ezustez; beranduago, jada Frantzian errefuxiatuta geundela, Bigarren Mundu Gerra etorri zen. Soinean genuenarekin alde egin behar izan genuen Paristik, alemanak zetozela eta. Garai hartan arkitektoa izan nahi nuen nik, baina noski, egoera hartan, ezinezkoa zen. Ideal horri heldu nahian, ordea, gizon ikasia, kulturaduna, izan behar nuela pentsatu nuen, behinik behin, sormenaren, artearen eta diseinuaren esparru horretan. Unibertsitate ikasketetan hasi ezin horrek, beste hainbat gauza ikusteko askatasuna eman zidan, eta marrazten, margotzen, zizelatzen,... hasi nintzen.

**Gerora arte adierazpen askotan aritu zaren arren, Nestor Basterretxea eskultore moduan da ezaguna.**

Argazkigintza esperimentalarekiko interes handia nuen, eta baita zinemarekiko ere. Zinea da tresnarik osoena; erritmoa du, txuri-beltzekoa edo koloreduna izan daiteke, ahotsa, gertakizunak, musika,... Gauza asko ditu, eta zinema bera ikusteko modua ere oso-oso berezia da: ia beti areto ilun batean izaten da, eta pelikula ikusle bakoitzari zuzentzen zaiola ematen du. Horregatik hunkitzen gara, edo negar egiten dugu. Oso interesgarria suertatzen zait zinemak duen xarma hori. Dena den, zenbait film egindakoa naizen arren, ez naiz zinema gizona; horretarako erabat zineman aritu behar du batek.

**Zenbateraino sartu zinen mundu horretan?**

13 edo 14 dokumental egin nituen, baina ez dut sekula pertsonekin lan egin. Gogoan dut, Hondarribian ezagutu nuela Txileko zinema zuzendari bat, eta film bat nola zuzendu behar ote zen galdetu nion. «Nik aktoreak zigortu eta mendean hartzen ditut, baina beste batzuek ez», esan zidan. Gerora irakurri nuen, halaxe zela; badirela beren ideia azaldu eta ondoren aktoreei askatasunez lan egiten uzten dieten zuzendari oso onak. Txiletarrak aurkakoa egiten zuen, eta iraindu egiten zituen aktoreak, haren ustez pantailan ateratzea baitzen aktoreen gogo bakarra. Nik ez dakit zer den hobea, baina zuzendari honek oso pelikula onak egin zituen Txilen, Pinocheten aurka-eta.

**Mundu irekia da, beraz, zinemarena.**

Bai, noski. Hala ere, ez dira sekula hauek izan ni dokumentaletara eraman nauten arrazoiak. Baina horixe, ni enaiz zinemagilea, eta dokumentala errazagoa da: egoerak, paisajeak, eszenografiak eta gertaerak, hor daude jada. Zuzendariak bere sentiberatasunaz filmatu besterik ez du egin behar.

**Zure sormen lanetan beti garrantzia handia izan dute euskal sustraiek.**



Oso garrantzitsua da niretzat euskal dimentsioa, eta honek eskulturan eragin dit batez ere. Ustez merezimendu pixka bat duen zerbait egin nuen, mitologia oinarri hartuz: *Euskal Serie Kosmogonikoa*.

**Zerk eraman zintuen horretara?**

Mitologia oso kontu serioa izan da herri honetan, guztietan bezala. Gure kasuan, txiroa da mitologia, oso etxekoa, baina gurea da. Mendeetan barrena grabitatu izan du mitologia honek, eta gure arbasoek erlijio moduan bizi izan dituzte kontu hauetako asko. Nik, gure mitologiaren handitasun hura jada ahaztuta zegoela sentitu nuen, eta, ia-ia, komikien bidez soilik azaldua izan zela. Honen aurrean, euskal mitologia ondo ikertzea pentsatu nuen, Joxemiel Barandiaranek ikertutakotik abiatuta, ondoren, horri arte kategoria emateko. Prozesu honek, euskaldunon historia hobeto ezagutzen lagundu zidan, istorio hauetariko asko, aspaldiko euskaldunen irudimenetik sortutakoak izan baitziren. Nire herria hobeto ezagutzeko bidea izan zen, beraz. Emakumezko pertsonaia bat, Mari, nolabait esatearren, mitologia honen jabea izatea, berrikuntza bat zen. Egia hau, adituek aztertua eta kontatua da. Horrela beraz, egurrean, eta tailugileen laguntzaz, hemeretzi irudi sortu nituen. Eta oso harro nago hori egin izanaz; oroitzapen lauso batetik, balio estetikoa eta poetikoa duen irudi galeria bat sortzeaz.

**Obra horrek euskaldunon ohituretan gehiago sakontzera bultzatu zintuen?**

Bai, hilarrienganako interes handia piztu zidan honek, eta baita nolabaiteko magiaz, izpiritu txarrak uxatzeko, baserrietako ateetan jartzen zituzten eguzkiloreenganakoa ere. Baina honi kontu politikoa gehitu behar zaio; izan ere, oso-oso euskalduna sentitzen naiz politikoki. Eta argi dago horrek zer dakarren. Oteizaren aipura itzuli behar da: obsesionaturik ez dagoena, galduta dago. Obsesioren bat eduki behar dela uste dut. Ez legeak hala diolako, norberak, ahal duen neurrian, pertsona konprometitua sentitu behar duelako. Eskulturaren bidez txertatu nuen, batez ere, euskal mundua nire obran.

**Oteiza aipatu duzu jada bi aldiz, eta berarekin eta beste batzuekin batera, Gaur taldea osatu zenuen. Zein helburu zenituzten arteari begira?**

Zoria oso garrantzitsua da bizitzan, eta gure aurreikuspenetatik erabat alde egiten duen zerbait da. Zoriak eragin zuen, urte jakin haietan, artista eta eskultore talde hark elkar ezagutzea. Zumeta, Sistiaga eta neroni bakarrik bizi gara talde hartatik. Oteizaren ideia izan zen Gaur taldea; berak Euskal Herri osoko kideak sartu nahi izan zituen, eta Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan ere sortu ziren antzeko taldeak. Gurea zen talderik indartsuena, hala ere; Oteiza eta Txillida zeuden. Kontuak kontu, talde hartan proposamen berritzaileak falta izan ziren. Oteizak berak sortutako teoria batzuk atera ziren handik, lehenagotik jada existitzen ziren zehaztapen batzuen inguruan. Niretzat, ordea, sortzea asmatzearen sinonimo da. Zenbaitek gezurti deitu izan diote Oteizari. Baina Jorge Oteiza ez da gezurtia, asmatzailea da. Asmatzaileak beti oker samar hasten dira, erasotuta. Baina Oteiza asmatzaile zoragarria zen.

> «Tolosan beti zaindu izan da asko kultura eta berau inguratzen duen guztia»

> «Oso garrantzitsua da niretzat euskal dimentsioa, eta honek eskulturan eragin dit»

> «Zahartzean, grina gehien pizten diguna bakardadea dela pentsatzen dugu»

> «Arte abstraktua, aurretik existitu dena kontuan hartu gabe obrak sortzea da»

**Hori ere artea ote?**

Bazuen gauza bitxi bat: kontraesanak. Askotan gezurtatzen zuen berak esandakoa, eta horrek gainontzekoak nahasten gintuen. Azkenean, ordea, bere adimen eta buruargitasunagatik zela pentsatzera iristen ginen denok; oso buruargia izan behar da, esaterako, denbora luzez teoria bat defendatzen aritu, eta gero, horri buelta eman eta esandakoa erabat baliogabetzeko. Honi dagokionez, Oteiza onena izan da, eta denbora asko beharko da, bere dohainak eta bere kalitatea dituen beste norbait etor dadin.

**Zer gertatu zen talde harekin?**

Desegin egin zen, eta zoritxarrez, euskaldunok garena oso ondo azaltzen duen zerbait da. Euskaldunok, funtsean, oso izaki independenteak gara. Badira taldeak, noski, baina hori gazte garaian gertatzen da. Zahartzen hasten garenean, interes eta grina gehien pizten diguna bakardadea dela pentsatzen dugu. Horrek ez du esan nahi, elkartasunik ez dugunik.

**Artearekin ere badu loturarik bakardade horrek, ezta?**

Bai. Artea hain da jarduera intimoa... Norberaren barren-barrenetik ateratzen den zerbait da, eta batzuetan azaltzea ere oso zail suertatzen da. Izan ere, obra baten inguruan egin aurretik pentsatutakoa azal daiteke, baina bidean barrena aurkitzen dena ez dakizu nondik atera den, eta ez da pedantekeria, baina hor kontu ilunak sortzen dira. Eta honek guztiak bakarrik egoteko gogo hori pizten du. Dena den, Gaur taldea ez zen arrazoi hauengatik banatu; Oteizaren eta Txillidaren arteko eztabaida oso gogor bat medio gertatu zen haustura. Besteok, ez genien, beharbada, eztabaida konpontzeko aholkurik eman, eta bitan banatu ginen. Alde batetik joan ziren Txillidaren zaleak, eta beste aldean, gu geratu ginen, Oteizaren zaleak, alegia.

**Nola ezagutu zenuen Oteiza?**

Bost urte Frantzian igaro, eta Argentinan jada hamaika neramatzala, hona etorri nintzen, 27 urterekin; baina Argentinan ezagutu genuen elkar.

**Arantzazuko santutegiko auzian elkarrekin izan zineten.**

Bai. Ni hona iritsi, eta orduan ari ziren elizako eraikina amaitzen, eta han topo egin genuen berriro; epaimahaikidea zen. Eskultura Oteizak egingo zuela jada erabakita zegoen, merezimendu osoz gainera. Izan ere, Oteizak artearen oinarria espazioa zela esan zuenean, oso gutxik izan zuten konfidantza beregan; baina izan zutenak oso garrantzitsuak izan ziren, eta horien artean Arantzazuko arkitektoak zeuden.

**Zu pinturan aritu zinen santutegian.**

Bai. Hona etorri nintzen, eta soldaduska ez egiteagatik ez nintzen kontsuletxetik pasa. Beraz, hilabetez bakarrik gera nintekeen hemen. Baina, nola diren kontuak! Arantzazurako lana aurkeztu eta irabazi egin nuen. Geratzea erabaki nuen, baina Afrikan pasa behar izan nituen bederatzi hilabete. Azkenean lanean hasi ginen, hiruron artean: Oteiza, Carlos Pascual de Lara madrildarra eta ni.

**Kripta margotzen hasi zinen, beraz.**

500 metro karratu margotu behar nituen. Baina Elizak, aspaldiko garaiez geroztik, gauza metafisikoak irudien bidez adieraztea eskatu izan die artistei: Jainkoa, betikotasuna,... Zer gertatu da irudi hauekin? Denborarekin, Jainkoa adibidez, gizon ederra da, ile luzearekin, laino baten gainean eserita, eta atzean hego erraldoidun aingeruak dituela. Arte hau guztia, barregarria da. Horrela beraz, muga horien barruan ez sartzeagatik, Vatikanoak zigortu egin gintuen, eta Arantzazutik alde egin behar izan genuen. Nik, kripta bat marraztu nuen hasiera hartan, eta 27 urte beranduago lortu nuen, azkenik, kriptan bertan margotzea. Asko aldatu zen denbora-tarte hartan, eta, errespetu osoz, gogoak eman zidan moduan margotu nuen [barreak]. Orain gutxi jakin dut, gainera, nire pinturak hondatzen hasiak direla, hezetasunagatik onddo bat sortu baita. Protesta egin beharko dut. Badakit ez gaudela dirua xahutzeko unerik onenean, eta hori konpontzea lan handia da. Baina, ez bada ezer egiten, pintura guztiak galdu egingo dira. Hau da nire egungo kezketako bat.

**Zure ibilbide artistikoaren heldutasunean harrapatu zintuen Arantzazuko auziak?**

Lanbidean aurrera egiteak, eta mailaz maila joateak, konpromiso batzuk dakartza, estiloz nahiz gaiez aldatzeko. Eta, nire ustez, goruntz doan prozesu horretan, norberagan eragina duten hainbat pertsonen obra ukitzen da. Nigan, erbestean nengoela, Gutierrez Solanak eragin nabarmena izan zuen; Espainia beltza margotu zuen berak. Noski, niri, gerra eta heriotzaren trantze dramatiko haiek bizi izanak sortu zidan zerbait barrenean. Finean, artista bezala heltzerakoan, norberaren pentsaeratik gertu dagoen jendearen babesa hartzen du batek. Eta heldutasun horretan, Mexikoko muralgileen lanak interes handia piztu zuen nigan; Orozco margolari besamotzarenak, zehazki. Interesa piztu zuen, ez estetikagatik bereziki, baizik eta nire bizipenen aurrean, eurek Mexiko berria, askatasuna, burua altxa zuen gizartea, eta abar, margotzen zutelako. Ikuspuntu politiko hartatik, beraz, asko gerturatu nintzen mexikarrengana.

**Adinak artearekiko ikuspegia aldatu dizu?**

Eboluzionatzen ari nintzen heinean, arte abstraktura heldu nintzen. Arte abstraktua, aurretik existitu den hori kontuan hartu gabe obra batzuk sortzea da. Hau da, ezerezetik sortzen den obra bat da, norbere buruarekin apostu moduko bat. Sekulako zailtasunak ditu.

**Jendeak ondoegi ez ulertzea bat izan liteke?**

Bai. Jendeak zerbait ulertzen ez duenean, zuzenean baztertu egiten du. Eta ez dira konturatzen arte abstraktuaren zailtasunaz. Baina zu artista moduan horra heltzen bazara, ondradutasunez horretan jarraitu behar duzu.

**Zuk halaxe egin duzu.**

Bai. Baina zer gertatzen da? Abstrakzioa ia beti dela, gaiaren sinpletzea. Horrela, ni iritsi izan naiz plano baten gainean zirkulu bat marraztera, jarraian neure buruari galdetzeko, «nora noa ni orain hemendik?». Trantze horretan nago oraindik ere.

**Belaunaldi berriek, hala ere, arte abstraktuan dihardute, ezta?**

Bai, bai. Gazteak hasi dira, eta egiten dituzte lanak; arte abstraktua indarrez sortu zen. 1925ean, Vasili Kandinski margolari errusiarrak esan zuen, lerroa, planoa, kolorea eta bolumena, euren kabuz eta euren artean nahastuz, artelan bat sortzeko modua direla. Orduan sortu zen arte abstraktua. Muga batzuk baditu, finean, inguratzen gaituen guztia atzean utzi behar baita, forma geometrikoak eta halakoak erabiltzeko. Baina nik obra bat sortzen dudanean, horixe da ikusten eta sentitzen dudana.



# Ibarran hasiko da bihar Euskal Herriko Bigarren Mendi Duatloi Zirkuitua

16:00etan abiatuko dira kirolariak Ibarrako plazatik; goizean gaztetxoentzako proba antolatu dute

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Euskal Herriko II. Mendi Duatloi Zirkuituari ekingo diote bihar, Ibarran egingo duten lehendabiziko probarekin. Sendi Ekintza elkartea eta Ibarrako Kirol elkartea dira Ibarrako probaren antolatzaileak, eta pasa den urteko parte hartzea gainditzea espero dute. Izan ere, dagoeneko 116 lagun daude izena emanda, eta iaz 125 kirolarik hartu zuten parte.

16:00etan ekingo diote kirolariek probari. Hiru zati izango ditu: lehendabizi 5,78 kilometro egingo dituzte lasterka; ondoren, bizikletaz 15 kilometro; eta, amaitzeko, 2,89 kilometro lasterka. Pasa den urtekoarekin alderatuta, badu aldaketarik ibilbideak. Iazkoan 6 kilometroko bira bat egin behar zuten korrika, baina aurtengoan ibilbide laburragoari bi bira eman behar zaizkio. «Horrela Ibarrako plazatik gehiagotan pasako dira, eta ikusten dauden herritarrentzat erakargarriagoa izango da», azaldu du Juan Zubia antolatzaile taldeko kideak.

Zubiak nabarmentzen duenez, giro «polita» sortzen da, «bai proba egunean bertan, bai eta aurreko egunetan ere». Izan ere, «parte hartzaile asko ari gara ikusten egun hauetan, lasterka zein bizikletaz, zirkuitua probatzen».

Bestalde, Internet bidez egin ahalko dute izen ematea parte hartu nahi dutenek, *www.mendiduatloia.com* webgunean, eta egunean bertan ere egin ahalko dute. 16 euro ordaindu beharko dira.

**Gaztetxoentzat ere bai**

Gaztetxoek ere euren lekua izango dute Ibarrako II. Mendi Duatloian. Bihar goizean, 11:30etik aurrera eurentzat prestaturiko ibilbidean parte hartu ahalko dute. Bi mailatan banatuta ariko dira. Batetik, 2003, 2004 eta 2005ean jaiotakoak, eta bestetik, 2000, 2001 eta 2002an jaioak. Irabazleentzat sariak ere banatuko dituzte. Parte hartu nahi duten gaztetxoek 11:00etan azaldu beharko dute Ibarrako plazara. Gaztetxoei zuzentzearekin, «kirol hau sustatu eta ezagutzera ematea» izan dute helburu antolatzaileek.

Helburu bera oinarri hartuta antolatu zuten pasa den urtean Euskal Herriko Mendi Duatloiaren Zirkuitua estreinakoz. Aurtengoak hamaika proba izango ditu. Bihar hasiko da Ibarran, eta abenduaren 2an izango da azkena Murgian. Tartean, eskualdean beste geldialditxo bat egingo du, Amasan, azaroaren 4an, hain zuzen. Proba guztietan batzen diren puntuetatik erabakiko dira zirkuituko irabazleak.


Pasa den urteko Ibarrako Mendi Duatloieko irabazleak. HITZA

## ↓ Datuak

**PROBA**

■ **Lasterka.** 5,78 kilometro: 2,89 kilometroko ibilbidea bi aldiz. 208 metro maldan gora. Ibilbidea: Plaza-Menditxorrotx-Uzturpe ikastola-Arano baserria-plaza.

■ **Mendi bizikletaz.** 14,80 kilometro: 7,4 kilometroko ibilbidea bi aldiz. 738 metro maldan gora. Ibilbidea: Ibarrako plaza-Eskolapioetako aldapa-Tolosako hilerria-Zazpi-Bide-Leaburu-Menditxorrotx-Arano-plaza.

■ **Lasterka.** 2,89 kilometro. 104 metro maldan gora.

**IZEN EMATEA**

■ **Prezioa.** 16 euro.

■ **Epea.** Aurrez egin nahi izanez gero, gaur da horretarako azken eguna. 22:00ak bitarte egin ahalko da. Bestela, egunean bertan. Gaztetxoek ere, egunean bertan eman ahalko dute izena goizeko probarako.

■ **Nola.** La Caixaren 2100 5725 82 02 00115959 kontu korrontean egin behar da ordainketa, parte hartzailearen izena eta abizenak jarriz. *www.mendiduatloia.com* helbidean eman behar da izena.

## → Laburrak

### Merce Tenaren tailerreko gaztetxoen lanak ikusgai

**IBARRA ›** Merce Tenak zuzenduriko marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa tailerrean iazko ikasturtean parte hartu dutenen lanak ikusgai dira Ibarrako kultur etxean. 6 eta 10 urte bitarteko gaztetxoak dira tailer honetan parte hartzen dutenak. Euren lanak hilabete osoan izango dira bertan, eta goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara ikus daitezke.

### Mendi Bizikleta Martxa eta Maratoi Erdia, Plazaolatik

**LEITZA ›** IX. Mendi Bizikleta Martxa eta VI. Maratoi Erdia Plazaolatik egingo dute igande honetan, hilaren 16an. Maratoi Erdian Mugatik Lekunberrira bitarteko 21 kilometroko bidea egin beharko da. Bizikleta Martxan, berriz, hiru ibilbide daude aukeran, heldu eta gaztetxoentzat: Andoaindik Lekunberrira (40 kilometro), Leitzatik Lekunberrira (15 kilometro) edo Lekunberri- Mugiro-Lekunberri (4 kilometro). *plazaolakirolak.org* helbidean edo egunean bertan eman daiteke izena.

### Izaskun izena dutenen festa, datorren igandean

**IBARRA ›** Izaskun izena dutenen jaia antolatu dute beste urte batez, datorren iganderako, hilaren 23rako, Izaskunen. Eguerdian, VIII. Toka txapelketa egingo dute, eta ondoren, meza izango da Izaskungo baselizan. Bazkaria Izaskun jatetxean egingo dute, Iñigo Perurenaren orkestrak alaiturik. Animatzen direnek 943 67 59 27 zenbakian eman beharko dute izena.

**Irudia ▷ Ibarra**

## BIZI-NAHI ELKARTEKOEN JAIAK HASI DIRA

Atzo hasi ziren Ibarrako Bizi-Nahi erretirodunen eta pentsiodunen jaiak. Euria ari zuenez, Emeterio Arreseko frontoitik bota zuten txupinazoa, eta, ondoren, mokadutxoa hartu zuten. Arratsaldean, berriz, karta jokoetan aritu ziren. Gaur, ibilaldi neurtua egingo dute goizean, eta gauean, zuzendaritzak prestatu eta zerbitzatutako afaria izango dute elkartean bertan. Ederki afaldu eta gero dantzaldia izango dute. Bihar goizean tokan ariko dira, eta arratsaldean, bingoan. I.T.





# Asteburuan ekingo diote frontoiko denboraldiari emakume pilotariek

Munduko Koparekin amaitu dute Nagore Arozenak eta Maider Mendizabalek trinketeko denboraldia

**Imanol Garcia Landa**



Garmendia, Arozena, Evaristti eta Mendizabal, Anoetako frontoian, entrenamendua hasi aurretik. I.G.L.

Trinketeko denboraldia bukatu berri da, Iruñean jokatutako Munduko Koparekin, eta orain paletarekin aritzen diren emakumezko pilotariak frontoia izango dute jokaleku. Hain justu, gaur hasiko da Gipuzkoako Elkarteen Arteko Txapelketa, eta Su-Berri elkarteak bi talde izango ditu lehian, nagusien lehen mailan.

Ainhoa Garmendia alegiarrak eta Nagore Arozena lizartzarrak osatzen dute Su-Berriko taldeetako bat, eta bestea Maider Mendizabal anoetarrak eta Nati Evaristti Beasainen bizi den argentinarrak. Lehenengo partida elkarren aurka dute, gaur, Anoetako frontoian, 19:00etan. Asteazken gauean elkartu ziren laurak entrenamendua egiteko.

Arozenarentzat eta Mendizabalentzat lehenengo kontaktua izan da frontoiarekin, trinketeko denboraldia amaitu berri baitute Iruñean jokatutako Munduko Koparekin. Espainiako selekzioarekin aritu ziren, bi nafarrekin batera. Munduko Kopan talde onenek parte hartzen dute, hau da, orain bi urte jokatu zen Munduko Txapelketan lehen hiru postuak lortu zituztenak eta kopa antolatzen duenak.



Arozena, bigarrena ezkerretik, eta Mendizabal, eskuinean, Iruñean jokatutako Munduko Kopako podiumean. HITZA

### Zilarrezko domina

Ligaxkan hiru partida jokatu zituzten, horietatik bitan Arozenak jokatu zuen eta bestean, Mendizabal aritu zen. Finalerako sailkatu ziren eta Arozenak jokatu zuen, nafar batekin bikotea eginez. Finala galdu zuten Frantziako selekzioarekin, Iparraldeko jokalariz osatutakoa, eta, beraz, zilarrezko domina lortu zuen taldeak.

Mendizabalentzat bosgarren Munduko Kopa izan da eta Arozenarentzat bigarrena. «Asmoa irabaztea zen, baina aurten gorabehera asko izan ditugu, eta azkenean ez genekien nola moldatuko ginen txapelketan», azaldu du Arozenak. «Finalean sartu ginen, eta hor zaudenean irabazi nahi duzu, eta beti da pena hori ez lortzea».

Trinketearen zailtasuna nabarmendu du Mendizabalek: «Trinketean oso erraz egiten duzu akatsa, horretarako leku asko daude; ez da frontoia bezala». Mendizabali oso zapore gazia utzi dio Munduko Kopak: «Nik ilusioa nuen lehiaketa horrekin, mundu mailako azken txapelketa izango zelako, baina oso sentsazio txarrarekin bukatu dut. Garbi dut hau izan dela azken txapelketa, jende horiekin ez dudalako aritu nahi gehiago». Mendizabalek gaineratu duenez, «uste dut gaizki tratatu gaituztela, zenbat jokatu dugun alde batera utzita. Denak nahi dugu jokatu. Azkenean hautatzaile bat dago eta bere lana zaila da, baina ez digute ondo tratatu, ni behintzat hala sentitu naiz. 20 urte daramatzat jokatzen, eta sotiltasun gutxi izan dute azkenean».

Munduko Kopa atzean utzita, frontoiko denboraldiari begira jarri dira Su-Berriko pilotariak.

## → Laburrak

### Agustin Jimenez eta Doctor Deseorako sarrerak salgai

**TOLOSA ›** Tolosako Leidor aretoan izango diren bi emanaldirako sarrerak salgai daude *www.kutxasarrerak.net* webgunean. Agustin Jimenez bakarlariak *Antología* saioa emango du hilaren 21ean. Doctor Deseo taldeak *Al amanecer seguir soñando* kontzertua emango du urriaren 6an.

### Gaztetxoentzako ibilaldia Alpino Uzturrerekin

**TOLOSA ›** Alpino Uzturre elkarteak hilaren 16rako, igandea, gaztetxoentzako mendi irteera antolatu du. Txangoa Kruzeta mendatean hasiko da eta Legutianon bukatuko da. Lau orduko iraupena izango du eta irteera 09:00etan izango da San Frantzisko elizatik. Izena emateko, *alpinouzturre@hotmail.com* helbidean edo 665 74 82 99 zenbakian.

### Nazioarteko politikari buruzko 4. mintegia

**TOLOSA ›** Tolosaldean Ikastnek antolatuta, nazioarteko politikari buruzko laugarren mintegia abian jarriko da urriaren 8an. Jesus Torquemada nazioarteko politikako analista izango da irakaslea. Guztira sei saio izango dira, astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara. Mintegiaren kostua 36 eurokoa da, eta plaza kopurua mugatu da. Izena emateko: *info@ikastn.com* edo 943 65 11 47 zenbakira.

### Tolosako Udalaren egutegiaren erakusketa

**TOLOSA ›** Tolosa Udalaren 2013ko egutegirako lehiaketan parte hartu eta hautatuak izan dira hainbat argazki ikusgai daude Aranburu Jauregian. Gaur zabalduko da, 17:30ean, erakusketa.

## Hilberriak eta urteurrenak

**ROSA SARASOLA ARANBURU**

(Ikasle eta mintzalagun ohia)

*Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik*

**BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA**

**BEASAIN,** 2012ko irailaren 14a

**ROSA SARASOLA ARANBURU**

*Gu ere lagun gaituzue*

AURTZAKA dantza taldea — bizi dantzan dantzan bizi

**BEASAIN,** 2012ko irailaren 14a



**MARIA IBARBIA URDANPILETA**

(Gure lankide Arantxa Urdalletaren ama)

*Une latz hauetan familiaren saminarekin bat egiten dugu.*
*Jaso itzazue gure elkartasuna eta besarkada.*

**LEABURUN,** 2012ko irailaren 14a

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @hitza.info
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea @hitza.info
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @hitza.info
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK **Galtzaundi euskara taldea** eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## 2012-09-14 Eguraldia

| Goiza | Arratsaldea | Tenperatura | Bihar | |
|---|---|---|---|---|
| | | 21º | GOIZA | OSKARBI |
| | | 14º | ARRATSALDEA | OSKARBI |
| | | | BEROENA | 23º |
| | | | HOTZENA | 14º |

## Farmaziak

### GAUR

▪ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
▪ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### BIHAR

▪ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
▪ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### ETZI

▪ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
▪ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### ETZIDAMU

▪ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13. Gauekoa: Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
▪ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
▪ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Agenda

### JAIAK

▪ **Ibarra.** Bizi Nahi erretirodun eta pentsiodunen elkartearen jaiak igandera bitarte. Gaur 09:30ean ibilaldi neurta, 20:00etan afaria eta ondoren dantzaldia. Bihar 11:30ean bikote mistoez osatutako toka txapelketa eta ondoren Ibarrako piparren eta tomateen dastatzea, eta 16:30etik 19:30era bingoa. Etzi, igandea, 09:00etan diana, 10:30ean hildako bazkideen aldeko meza, 14:00etan bazkideen bazkaria Belabieta kiroldegian, eta 19:30ean jaien amaierako txupinazoa.
▪ **Alegia.** Kalebeherako jaiak: Gaur 19:00etan festei hasiera emateko txupinazoa eta buruhandiak, eta 20:00etan patata tortilla lehiaketa, zahagiardoa eta trikitilariak. Bihar 09:30ean eskualdeko bertso eskolen aurkezpena eta batzarra, eta ondoren, bazkaria eta bertso poteoa egingo dituzte; 12:00etan krosa egingo dute, 16:00etan plaza txapelketa eta ume jolasak, 21:00etan zahagiardoa, 22:30ean bertsolarien saioa eta ondoren trikitilariak. Eta etzi, 12:00etan herriko dantzarien saioa, txakolin dastatzea eta sardina erreak, 14:30ean bazkaria, 17:00etan esku pilota eta pala txapelketako finalak, eta ondoren, zahagiardoa, eta afaldu ondoren, mus txapelketa.

### DEIALDIAK

▪ **Tolosa.** Eskulturastearen barruan, gaur, fruitu eta barazkiekin mandala bat egingo dute Hirukide, Laskoran, Orixe, Samaniego eta Uzturpe eskoletako ikasleek San Frantziskon. Bihar 12:00etatik aurrera, Topic zentroan, lehiaketako sari banaketa egingo dute, Nestor Basterretxea omenduko dute, eta lehen sinposioaren azterketa eta itxiera egingo dituzte.
▪ **Amasa.** Txakolin Eguna bihar, 17:00etatik aurrera. Lehenengo pilota partidak izango dira.
▪ **Tolosa.** Garagardo azoka Zerkausian igandera arte.
▪ **Ibarra.** Ibarrako Bai Euskal Herriari taldeak bihar Algortan ospatuko duen Euskal Herria Egunera joateko deia egin du. Txartelak Ibarrako Danon, Sendi Ekintza eta Atari tabernetan erosi daitezke, edo Tolosako Denak tabernan 10 euroren truke.

### ZINEMA

▪ **Tolosa.** Leidorren bihar 19:30ean eta 22:30ean, *Prometheus*; igandean, 17:00etan *Ice Age 4* eta 19:30ean *Elefante blanco*, eta astelehenean, ikuslearen eguna, *Elefante blanco* 22:30ean.

### MUSIKA

▪ **Tolosa.** Bonberenea Sutan jaialdia bihar Glaukoma, Matxura, Berri Txarrak, Gas Drummers eta Gose taldeekin. Sarrerak internetez eskuratu daitezke, *sarrerak@bonberenea.com* helbidera idatziz, edo Tolosako Eguzki, Orbela, Denak eta Mescal tabernetan 15 euroren truke.

## Agurrak



**Urte askoan!**
**Maddi Lopetegi Serrano (Ordizia).**
Gaur 10 urte.
Zorionak eta muxu asko etxeko guztien eta lehengusuen partetik.



**Zorionak!**
**Anizeto Sarasola (Anoeta).**
Bihar 88 urte.
Zorionak eta ondo pasa etxekoen eta Migelen partetik.



**Urte askoan!**
**Maren Ayerza Labalen (Amezketa).** Gaur 4 urte!
Zorionak eta muxu handi bat ahizpa Amalur eta etxeko guztien partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info
agurrak




